



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2005eko otsailaren 23ko ohiko bilera**

BERTARATU DIRENAK:

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYA jn.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARAGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta bosteko otsailaren hogeita hiruko iluntzeko zortziak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak

ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2005-01-25eko APARTEKO BILERAREN ETA 2005-01-27ko OHIKO BILERAREN AKTAK ONESTEA: Izenburuan aipatutako bilkuren aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri dira.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, 2005eko urtarrilaren 25eko aparteko bileraren eta 2005eko urtarrilaren 27ko ohiko bileraren aktak onetsi ditu.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Une honetan EAJ-PNVko Fco. Javier Bidea Molinillo jauna eta EB-Berdeak taldeko Ruben Belandia Fradejas jauna sartu dira batzar-aretoa.

2.- HAPO ZATI BATEAN ALDATZEA, LANGILERIA KALEKO 180-182 ZENBAKIEKIN IDENTIFIKATUTAKO ERAIKINA DAGOEN ORUBEA ANTOLATZEKO, LAMIAKO-TXOPOETA BBBPBko LANEKIN KOORDINATUZ:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko otsailaren 15ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 66/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko otsailaren 9an hartu zuen 12 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Plan Orokorra zati batean aldatzeko espedientearen berri eman da, egoitzazko hiri-lurzoruaren 46. arloa sortzeko. Horren lurralde-eremua bat dator Langileria kaleko 180-182 zenbakietako higiezinarekin eta haren alboko inguruarekin. Espedientearen helburua gaur egun dagoen 12 etxebizitzako higiezina 24 etxebizitza izango dituen oin berriko beste higiezin batekin ordeztzea da; azken horren bolumena bat etorriko da Lamiako-Txopoeta BBBPBaren 1. blokearenarekin. Espedienteak, alde batetik, hainbat hobekuntza aztertu ditu alboko inguruan, esaterako: eraikina atzeraematea, 184. zenbakiko blokea eta BBBPBan aurreikusitako blokea batzen dituen lerroa ez gainditzeko; 184. zenbakiko atariak eta eraikiko den bloke berriak batera izango duten plazatxo handitzea eta plazatxo horren atzeko hegala atontzea. Batzordeko buruak adierazi du udala gaur egungo higiezinaren (180. ataria) % 50 ingururen titularra dela eta 182. zenbakiko atariko titularrekin negoziatuko duela aldaketa espedientearen emaitzazko aprobetxamenduaren banaketa, 182. zenbakiko higiezinaren titularren jabetzako lur-zati bat ere hartzen baitu. Sortutako aprobetxamenduak banatzeari buruzko akordio egokia lortzekotan, behin-behinekoz onetsiko litzateke espedientea; hala gertatu ezean, gaur egun indarrean dauden aurreikuspenekin jarraituko litzateke. Era berean adierazi du udalari dagokion aprobetxamendua oraindik zehaztu ez diren ekimenetarako erabili ahal izango dela, adibidez, auzorako ekipamendu eraikin bat finantzatzeko. Iritziak azaldu dizkiote elkarri eta, bertan, EB-Berdeak taldeko ordezkariak adierazi du ez dagoela ados espedientearen planteamenduarekin. Bere ustez lehentasuna dauka arrazoizko prezioko etxebizitzak eraikitzeak eta jarduera hau horrelako etxebizitzak eraikitzearekin lotuko balitz, ekimenarekin ados egongo litzateke.

Batzordeko buruak adierazi du espedientearen fase honetan Udal Bulego Teknikoak proposatutako diseinua aztertu baino ez dela egongo. Kudeaketa fasean zehaztu beharko da, hain zuzen ere, Leioako udalak bere eraikuntza-eskubideekin zer egin nahi duten.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Espedientea bidaliko zaio udalaren osoko bilkurari, gaia eztabaidatu eta hasieran onesteko.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Udalaren osoko bilkurak hasieran onetsitakoan, hilabeteko epean azalduko da agiria jendaurrean, iragarkiak argitaratuz BAO eta egunkarietan, gai honetan indarrean dauden legeetan zehaztutakoa betetzearren (Lurraren Araudiari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen 41. artikulua, 1976ko apirilaren 9ko testu bat egina).

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berrets** **egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Planteamenduaren kontrako jarrera adierazi du, izan ere, berez negatiboa denik uste ez badute ere, ez dakite zein erabilera duen edo proiektuari zein aurreikuspen eman nahi dizkieten, eta kontuan izanik Udalaren beraren jabetzakoa den proiektu-zatia, iruditzen zaie ez dela erabakitzeko unea harik eta zer nahi den jakin arte. Horri dagokionez, adierazi du irtenbide posible bakarra izan dela eragiketa honetatik atera behar zuten etxebizitzetarako, eta oso eskasa iruditu zaie; hori dela eta, kontra bozkatuko dute.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Azaldu duenez, Hirigintza Batzordean emandako azalpen teknikoek konbentzitu egin zituzten, baina etxebizitza mota horri eman behar zaion erabilari dagokionez, erabakia hartzeko unea ez bazen ere, orduan adierazi zuten eta gaur ere adierazi nahi dute, oso garrantzitsua iruditzen zaiela Leioako udalak etxebizitza publikoko parking bat izatea larrialdi eta alokairu kontuetarako.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Soilik bere talde politikoaren jarrera argi uztearren, adierazi du orain osoko bilkurara ekarritakoa Plan Orokorren aldaketa dela, horri dagokionez egiten den proposamen teknikoa egokitzat jotzen dutela eta uste dutela gero denbora izango dela aldaketa honekin Udalarari dagozkion eskubideekin zer egin erabakitzeko; hori dela eta, aldeko botoa emango dute.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Nik uste dot Hirigintza Batzordean azaldu genduzan gaiak, agian onartuko deustazue gaiaz edo puntuz puntu joatea baina agian ez dauka zentzu haundirik gaurko egunean, zentzu haundiagoa izango dau behin-behineko onarpena egiten dogunean eta ez orain hasierako onarpena bakarrik danean, orduan, txarto ez baderitzozue, ez dot parte hartuko puntu bakotxean baizik eta oraintxe esan lau hitzetan zelan ikusten dogun honeek hiru gaiok.

Gobernu Batzordean komentatutakoa, bai Tellerian bai Lamiako-Txopoeta eta Gaztelubide tartean dagoen etxe zahar horreetan, eta baita Ondiz inguru honetan, nik uste dot, Plan orokorra txarto emondako urtenbide bat daukagula mahai gainean eta Udaletxeko Hirigintzako Teknikariek eta Gobernu Taldeak planteaketa edo desberdin



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

bat egin dau, orduan, ez da dagoen planteaketa bakarra, gai baktotxean planteamendu desberdinak egon daitezke, baina, orain egiten doguna, egia esanda, lehenengo edo hasierako hastapen onarpen honegaz prozesu bat zabaldu, hemendik aurrera etorriko dira emendakinak eta planteamendu berriak egiteko epea, eta gero beste Hirigintza Batzordean amaituko dogu, hor mahai gaineratuko doguzan planteamenduakaz, azkenean barrero Udalaren Osoko Bilkura honetara etorriko gara. Horretan bai nik uste dot baktotxak azalduko doguzala zelan ikusten doguzan gure ikusputuatik eta gure planteamenduak gaiz gai, baina ez noa gehiago luzatzen. Esan neban, badakizue, eta eukiko dogu astia berba egiteko, gaur hasiera emoten deutsegu, eta hemendik aurrera alkar ikusiko dogu.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du bera ez datorrela bat unea ez dela esatearekin, izan ere Lamiakori dagokionez Plana aldatu nahi bada eta Plana aldatzeko zein erabilera eman nahi zaion jakin behar bada –ez baita gauza bera esatea gune batean etxebizitzak jarri behar dituztela helburu bat edo beste bat lortzeko, adibidez babes ofizialeko etxebizitza gisa saltzeko, etxebizitza tasatua, gizarte-preziokoa, alokairukoa, edo besterik gabe espekulatzeko edo kirolegia ordaintzeko...-, erabaki batera hel litezke horrekin egin behar denari dagokionez, eta konpromiso horri eutsi eta adierazi aldaketa horri emango zaion erabilera bakarra hitzartutako konpromiso hori izango dela.

Errepikatu du ezin duela entzun ez dela unea eta eginda daudenean ikusiko dela; eta horregatik ez dute onartu behar arauak aldatzea zertarako egingo den jakin gabe; iruditzen zaio une honetan erabaki behar dela aldaketa horri zein helburu ezarri behar zaion, eta erabaki horren arabera jakingo dute aldaketa egiteak interesa duen edo ez. Ondoren adierazi du ildo horretan ez dituela ulertzen Talde Sozialistaren eta Talde Popularraren azalpenak, eta esan du berak badakiela zertarako bideratu nahiko liratekeen, eta uste du beharbada gune horretan ez dela etxebizitza gehiago behar, espekulatzeko baldin bada. Aukera bat da, baina zertarako erabiliko den ez dakienez, kasu honetan ikusten duen bakarra da 6 etxebizitza dauden tokian 12 egin nahi direla eta Udalak eraikinaren erdia duela eta ez dakiela zertarako nahi duen; orduan, alderdi pribatuari begiratu, nahiko nuke erabakian eragin ahal izan eta %100 kontrolatu ahal izan, nahiz eta gaur beharbada ezin duen, baina nolana ere, alderdi publikoan oso argi du borondate publikoak adierazita egon behar duela, zertarako nahi duen adierazi behar duela; hortaz, ez dute utziko gero beste gauza bat egiterik, izan ere, bestela beharbada gaur baiezkoa ematen dutenek gero eskuak burura eraman behar izango dituzte.

Adierazi du gauza bera esaten dutela Plan Orokorraz, izan ere une hauetan esaten da gune jakin batzuetan oso gaizki dagoela eta aldatu egin behar dela, eta duela bi urte, aldiz, bikaina eta aldaezina zen, eta gune horietakoren bat aldatu nahi zenean, hain zuzen, ezin zen egin bikaina zelako; hortaz, uste du errazagoa dela konpromisoak hartzea zer egiten den eta zertarako egiten den jakiteko.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Azaldu du ez zuela bigarren txandan esku hartzeko asmorik baina EB-Berdeak taldeko bozeramaileak egindako aipamenak direla eta, erantzun egin behar diola, hain zuzen, uste duela gaur hartzen ari den erabakia dela, Hirigintza Batzordean azaldu zen



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

gisan, teknikarien ustetan eraitsia izan behar duen eraikin bat, Barne Erreforma eta Birgaitze Planean (PERRI) horrela jasotzen ez zena, aldatzea; hori dela eta, eta planteamendu horrekin ados daudenez, baiezko botoa emango dute, uste baitute aldaketa beharrezkoa dela, izan ere Barne Erreforma eta Birgaitze Plana egin duten teknikariek esan diete gaizki egin dutela eta hori horrela egin behar zela, konturatu izan balira PERRIn sartuta egongo zatekeela.

Ondoren, EB-Berdeak taldeko bozeramailea mahairatzen ari denari dagokionez, ea etxebizitza horiekin zer egin behar den alegia, adierazi du bere talde politikoak argi duela eta horrela jakinarazi dutela Hirigintza Batzordean eta, halaber, gai honetan egindako lehenengo mintzaldian; bertan azaldu dute ez dutela etxebizitzekin espekulatzea nahi, eta hortaz proposatzen dute etxebizitza sozialak izatea eta gero ikusiko dela larrialdietarako edo bestelako gauzetarako izango den. Bere mintzaldia bukatzeko, erantzun du beraiek ez dituztela eskuak burura eramango izan ere beste gauza bat izatea erabakitzen bada dagokion unean beste gauza horretarako ezezko botoa emango dute.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Badakit Iñakik ez daukala esan nigitik, baina nik esan dodanean ez dodala gura gaur erabili asti hau honen inguruan berba egiteko ez da posible ez dalako, baizik eta, benetan nik uste dot egindako planteamendu honeei buruz berba egingo dogunez hurrengo Batzorde baten, eta benetan erabakiorra dan Udal Osoko Bilkura hurrengokoa da, eta horretan luze azalduko dogu bakotzak norberaren planteamendua ekarteko. Agian Gobernu Taldekoa ez da aldatuko, edo bai, baina beste batzuk egon daitekez mahai ganean eta orduan bai hartuko dogu erabagia, bata edo bestea, onartzeko planeameduari dagokionez, horrexegaitik esaten dot Iñakik horretaz ez deustala niri aitatu. Dana dala, Iñaki, gure aldetik ez dago inolako arazorik, nahiz eta orain planeamenduari buruz berba egiten ari, ba azkenean, puntu horretan, Telleriako puntu horretan edo beste guztietan zelan ikusten dogun gaur guk gain balio horren destinoa, horretaz be berba egiteko modua egongo da, eta gure aldetik ez dago inolako arazorik, eta nik esango dot ganera momentu horretan, gure taldeak zertara dedikatu leuke diru hori, eta horretaz, nik uste dot, mahai ganean egongo diran gure aldetik karta guztiak; hara, dinot, azkenean, hemendik hilabete batera edo bi hilabetera planeamenduari buruz berba egingo dogu, gero beste bat etorriko da eta nahiz eta orain bakotzak bere preferentzia edo bere ideak euki, beti aldatu daitekez, eta hori be egia da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du aktan jasotzea nahi duela inork ez duela esan etxea eraitsi egin behar denik, baizik eta helburua egokiagoa den beste zerbaitekin ordezkatzela dela; izan ere, bere esanetan teknikariek eraitsi egin behar dela esan dutela adieraztea esan ez den argudio bat da; gainera uste du ez datorrela bat errealitatearekin; esaten dena da komenigarria dela ordezkatzela, blokeen itxurarekin hobeto datorren itxura izateko, beraz erabat ezberdina da etxe bat eraitsi egin behar dela esatea eta beste modu batera egitea polita litzatekeela esatea.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:
EB-Berdeak taldeko bozeramaileari adierazi dio eztabaida zentzugabea dela, izan ere Lamiakon botatzen diren 166 etheen kontua bezalakoa da, dagoen moduan dagoelako da, eta beste arrazoi askoren artean polita ez dagoelako.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hemeretzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak, PPko lau zinegotzienak eta EAko ordezkariarena; kontrako bi boto ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz**, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpena berretsiz, hasieran **onetsi du** Plan Orokorra zati batean aldatzea egoitzazko hiri-lurzoruaren 46. arloa sortzeko; horren lurralde-eremua bat dator Langileria kaleko 180-182 zenbakietako higiezinarekin eta haren alboko inguruarekin. Espedientea jendaurrean azalduko da eta epe horretan inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, erabakia behin-behineko bihurtuko da.

3.- LEIOAKO PLAN OROKORRA ZATI BATEAN ALDATZEA, 42. ARLOAN (TELLERIA). Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko otsailaren 15ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 67/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko otsailaren 9an hartu zuen 13 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Mónica Rodríguez Álvarez andreak, Etxezi, S.L. merkataritza-etxearen eta Miguel Ángel Jauregui Viteri jaunaren izen eta ordezkartzan aurkeztu zituen idazki eta agirien berri eman da. Horien bitartez, Plan Orokorra zati batean aldatzeko (42-Telleria arloan) espedientea tramitatzeke eskatu zuen, bertan hirugarren adineko pertsonentzako egoitza (3.134 m²) eta etxebizitza multzo bat (2.840 m²) eraikitzeke.

Batzordeko buruak adierazi du espedientea tramitatzea komeni dela, Plan Orokorrean 42. arloa dela-eta dauden hirigintzako aurreikuspen kontraesankorrak bateratzeko. Era berean nabarmendu du bertan jardun duten sustatzaileekin hartutako erabakiak hirugarren adineko pertsonentzako egoitza abiarazteko aukera bermatzen duela eta, horrela, Leioan orain arte egon ez den ekipamendua edukitzeko aukera egongo dela epe laburrean. Horrela bada, operadore ezberdinekin izandako elkarrizketak aipatu ditu: horietako inork ez du Plan Orokorrean aurreikusitako azalera izango duen egoitza egiteko erabakia hartu. Gainera, ekimena aurkeztu duten sustatzaileek 3.134 m²-ko egoitza eraikitzeke konpromisoa hartu dute, 2.840 m²-ko etxebizitza multzoa eraiki aurretik edo aldi berean. Era berean adierazi du gune barruan haurtzaindegia izango litzatekeen lur-zati edo lokal bat banatzeko aukeraren berri eman zaiela bertan jardun duten sustatzaileei, gaur egun San Bartolomen Aita



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Oblatoek duten eraikinean dagoena itxiko baita. Aukera hori egiaztatu gabe dago oraindik, eta espedientea jendaurrean azaltzeko tramitea burutu bitartean egiaztatuko da.

Espedienteko aurreikuspenei buruzko iritzia azaldu dizkiote elkarri. EB-Berdeak taldeko ordezkariak adierazi du ez dagoela ados espedientearen planteamenduekin. Bere ustez, udalak, Plan Orokorrean hirugarren adineko pertsonentzako egoitza sortzeko aurreikuspenak sartzeari onartu zuen, bertan garatuko ziren erabilerak ekipamendu horrenak bakarrik izateko. Ekipamendu eta egoitza erabilerak aldi berean ematekotan, gaur egun arloan dagoen etxebizitza multzoaren barruko zaharberrikuntza ere aipatu beharko luke espedienteak. Halaber, PSE/EE/PSOeko ordezkariak adierazi du ez dagoela ados haurtzaindegia ekipamendu publikoa arlo zehatz baten zerbitzuan sartzeari planteatzearekin, udalerriko auzo guztietan horrelako zerbitzuak ezartzen dituen inolako politikarik ezarri ez denean.

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Espedientea bidaliko zaio udalaren osoko bilkurari, gaia eztabaidatu eta hasieran onesteko. Espedientean honako zehaztapen hauek erantsi beharko dira:
 1. Zati bateko aldaketaren ondorioz bereizitako arlo bi sortuko dira: Lehenengoaren izena Telleria finkatua (42A) izango da eta, bigarrenarena, Telleria hutsik (42B). 42B arloaren muga bat etorriko da 42. arloaren inguruarekin, Plan Orokorrearen arabera; 42A arloaren muga, era berean, lur-eremu horretan gaur egun dauden eraikinei lotutako jabetza pribatuko lurzoruekin etorriko da bat. Horren guztiaren ondorioz, arloko sustatzaileek espedientetik eratorritako aurreikuspenen arabera eta burutzapen unitate bakar baten bitartez urbanizatu beharko dute 42B arloa hartzen duen azalera guztia.
 2. Telleriako biribilgunearen eta eraikinaren artean gaur egun aparkaleku gisa erabiltzen diren gunean herri jabarirako bakarrik lagako dira. Aurreikusitako blokeak inguratzen dituzten berdeguneak eta San Bartolome kalea eta Txopoeta etorbidea batzen dituen aparkalekua izaera pribatukoak izango dira.
 3. Espedientea aurreikusitako etxebizitza multzoa eraikitzeko obretako lizentzia eman ahal izateko, hirugarren adineko pertsonentzako egoitzaren obrak hasi beharko dira. Jardun duten sustatzaileek, gainera, bere garaian zehaztuko den zenbatekoa izango duen banku-abala eman beharko dute, aipatutako egoitza amaitu eta funtzionatzen hasiko dela bermatzeko.
 4. Espedientea onetsitakoan banan-banan jakinaraziko zaie eragindako titularrei.
 5. Gehienez 20 etxebizitza egon ahal izango dira.
 6. Jardun duten sustatzaileek Burutzapen Unitatean dauden elementu guztiak urbanizatuko dituzte, esaterako autobus-geltokia, aparkalekua, etab., 42A arloaren mugetaraino. Era berean, Txopoeta etorbidearekin



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

lotzeko kalearen aurrez aurre dauden Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzako lur-zatiak ere urbanizatu beharko dira.

7. Leioako udalak eta sustatzaile interesdunek gunean burutu behar diren hirigintzako kargak banatzeko hitzarmena gauzatu arte, espedientea ez da behin-behinekoz onetsiko.

- Udalaren osoko bilkurak hasieran onetsitakoan, hilabeteko epean azalduko da agiria jendaurrean, iragarkiak argitaratuz BAOn eta egunkarietan, gai honetan indarrean dauden legeetan zehaztutakoa betetzearren (Lurraren Araudiari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen 41. artikulua, 1976ko apirilaren 9ko testu bat egina).

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berrets** **egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Hainbatetan aipatu duten *hirigintza kartararen* adibide garbia dela azaldu du. Horri dagokionez, adierazi du badela sustatzaile bat egikaritze-unitate baterako interesa duena, eta orduan zalantzak izan daitezkeenez, denek ikusia zuten triangelu bat, arrosa, ekipamenduena, badirudi gauza bat ahalbidetzen duela eta hori horrela erabaki dute baietz, hori baimentzen duela; bere ustez irtenbide hori ez da baliozkoa, izan ere baziren hainbat etxe egikaritzapen unitatetik kanpo gelditzen arienak ekipamendu soila zelako, eta ekipamendu eta egoitza izan balitz uste du sartu egin beharko zituztela, eta beste modu batean tratatu. Adierazi du orain egitea, *etxeak egitea uzten badiote etab. 2.000 metro karratutan egoitzak egiteko prest* dagoen sustatzaile bat badenean, ez zaiola irtenbide egokia iruditzen. Beharbada gune aldatu beharko litzatekeela adierazi du, izan ere beharbada pentsatu beharko litzateke ea triangelu horren inguruko gainerako etxeak bat ote datozen edo ez edo berean egon beharko luketen, izan ere ez da gauza bera ekipamendua eta ekipamendu eta egoitza. Halaber, adierazi du Hirigintza Batzordearen irizpenean agertzen dela San Bartolome kalearen artean egiten den aparkalekua soilik jabe pribatuentzat geratuko direla, eta adierazi du ez dakiela hori ideia ona den, hau da, erabakitzea alderdi hura hobetu behar zuen aparkalekua azkenean soilik erabilera pribaturako izatea.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Proposatutako aldaketa bere talde politikoari positiboa iruditzen zaiola adierazi du, eta hala adierazi zutela Hirigintza Batzordean, izan ere aukera emango du orain ezer ez dagoen lur batean –nahiz eta soilik ekipamendu bat ezartzeko aurreikuspena bazen- ikusten dute aldaketa honen bitartez aukera izango dela hasieran aurreikusitakoa baino okupazio txikiagoko egoitza izateko, sustapen libreko etxebizitzekin. Adierazi du oro har ekimena positiboa iruditzen zaiela auzorako, oraingo arlo hau inguratzen duen gainerako alderdian gero zer gertatzen den gorabehera.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

EB-Berdeak taldeko bozeramaileari adierazi dio argitu egin beharko litzatekeela hemen lortu nahi dena gehienbat hirigintza-fitxa argitzea dela, izan ere nahiz eta Plan Orokorra ona zen, ez zen ezin hobea, izan ere ez dago ia ezer ezin hobea denik, eta zehazki kasu honetan bazen hirigintza-fitxa zalantzarri bat, egoitza erabilera misto gisa interpretatzeko aukera ematen zuena, egoitza etxebizitza adinekoen egoitza pribatuaren ekipamenduarekin, eta hori garbi ondorioztatzen zen hirigintza-fitxatik baina ez zen ongi interpretatzen zein portzentajetan, eta besterik gabe egin dena da hirigintza-fitxa aldatu hori garbia izan dadin eta egoitza egingo dela bermatzeko eta horrela interes publiko eta interes pribatuaren arteko orekari eusteko.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Errepikatu egin du hori egin behar bada eskatuko lukeela gainerako etxeak ere sartzeko, egiten den aparkalekuari izaera pribatua ez emateko, izan ere bere esanetan ekipamenduak oso interesgarriak dira, baina kontua da duela gutxi ikusi duela honen berdina zen beste ekipamendu bat, bat-batean auri-egoeran zela aitortu eta berriz hiri-lur bilakatu eta etxebizitzak egin direla ehunka metro batzuk gorago. Horri dagokionez adierazi du gauza guztiek etorkizun bat eta arrazoi bat dutela, eta adierazi du ea hobea den hori egoitza handia baino txikia izatea, edo erabakitzea egoitza txiki bat eta etxebizitza egon daitezkeela, horri buruzko konpromiso bat jada nolabait hartuta dagoenean, horretarako oinarri hartuta norbaitek lur bat erosi duela, planoetan denek ikusten zutelarik triangulu soilik arrosa, ekipamenduena. Adierazi du ez duela uste ez aparkalekuak pribatua izan behar duenik, ezta horrela egin behar denik, eta errepikatu du etxebizitzaz hitz egin behar bada ikusi beharko litzatekeela alde horretako gainerako etxebizitzak Planean sartuta dauden, ikusteko geratuko den modua baino hobeto nola gera daitekeen, eta egoitza txiki bat ere ez baino hobea dela, beharbada hori zein prezioetan den aztertu beharko litzatekeela gaineratu du.

Eako Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa adierazi du:

EB-Berdeak taldeko bozeramaileari adierazi dio gunea ezagutuko duela uste duela, izan ere bere esanetan nahiko pasaeran den toki bat da, eta etxebizitza-multzoak, eta ez soilik multzoak baizik eta hango gizarte-bizikidetzeta bera, oso ongi markatuta dago. Horri dagokionez esan du bere iritzian unitate hori, juxtu aro horretan ez dagoen lau solairuko etxe bat kenduta –ondoko arloan dago-, EB-Berdeak taldeko bozeramaileak aipatu dituen etxeen multzoari arazorik gabe eutsi ahal zaiola, batzuek egoera txarrean egon arren uste duelako badela proposamenen bat horiek berritzeko, eraikitzeko etab., beraz EB-Berdeak-ek egindako eskaera, alegia gainerako etxeak ere sartzeko eskaera, ez du arrazoizkotzat jotzen.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hemeretzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak, PPko lau zinegotzienak eta EAko ordezkariarena; kontrako bi boto ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz**, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpena berretsiz, hasieran **onetsi du** Leioako Plan Orokorra zati batean aldatzea, 42-Telleria arloan. Espedientea jendaurrean azalduko da eta epe horretan inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, erabakia behin-behineko bihurtuko da.

4.- HAPO ZATI BATEAN ALDATZEA, ONDIZ AUZOA GARATU AHAL IZATEKO, HIRI-LURZORUKO 28 A (ONDIZ FINKATUA), 28 B (ONDIZ HISTORIKOA) Y 37 (ONDIZ HUTSIK) ARLOAK SORTZEAREN BITARTEZ: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko otsailaren 15ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 68/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko otsailaren 9an hartu zuen 14 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

"Plan Orokorra zati batean aldatzea, 28 A (Ondiz finkatua), 28 B (Ondiz historikoa) eta 37 (Ondiz hutsik) arloak sortzeko" izeneko espedientearen berri eman da. Horren helburua arlo horietan higiezinaren ikuspegitik bidera daitezkeen aurreikuspenak egitea, ekipamendu-lurzorua lortzeko aukera sortzea eta Ondiz eta Txorierrri auzoetara sartzeko bideak hobetzea da. 37. arloaren antolamenduaren oinarria Ondiz auzora sartzeko % 6ko malda izango duen beste bide bat irekitzea eta babes ofizialeko 60 etxebizitza eta 32 etxebizitza libre izango dituen blokea eraikitzea da, Euskal Etxeen Plazan abiarazitako perspektibari azken ukitua emanaz. Arloa kudeatzeko emakidadun bidez desjabetuko da eta, aurreikusitakoaren arabera, 12.000 m² inguruko orubea doan lagako da; bertan bigarren hezkuntzako beste ikastetxe bat eraiki liteke, gaur egun Sakonetan eta Santsoenan daudenak ordeztzeko. Beste alde batetik, 28 B arloaren antolamenduak hiri-gune bat sortzea du helburu; tipologia nagusia binatutako etxebizitzena izango litzateke eta, horrenbestez, auzoan aurretiaz zeuden elementuekin bateragarria izango da, guztiz mantenduko baitira. Era berean, oin berriko 64 etxebizitza eraikitzea ere aurreikusi da. Espedienteak Andra Mari ermita inguratzen duen parkea handitzea, herri kirolen pabilioian eta ermitan bertan egingo diren gertakarien zerbitzurako aparkaleku handia sortzea eta Alzaga Ikastolako jolas-guneak handitu eta hobetzeko lurzorua doan lagatzea aztertzen ditu.

Batzordeko buruak aurreko legegintzaldian Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak egindako kudeaketen berri eman du, Plan Orokorreko aurreikuspenen garapena 37. arloaren garapenaren kontura egin zedin, bertan Plan Orokorra etxebizitzen % 100 BOE izatea eta desjabetzearen bidez jardutea aurreikusi baitzuen. Ekimen horri erantzuteko Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen arloan jasan beharreko hirigintzako kargak garapena bideraezin bihurtzen zutela eta, horrela, udalak, arloaren hedadura murrizteko eta etxebizitzak BOE eta libreen artean (% 65-% 35) banatzeko aukera aztertu behar izan zuen. Muga berriak, beraz, Mesedetako Ikastetxetik Independentzia



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

kalearen saihesbidea hasi artekoak izango dira. 28 A eta 28 B arloei dagokienez, adierazi du Plan Orokorrak aztertzen zuen aprobetxamendu hain murriztuak ($0,17 \text{ m}^2/\text{m}^2$) ezinezko egiten zuela berau garatzea; horrenbestez beste handiago bat lortu da ($0,26 \text{ m}^2/\text{m}^2$) baina hori ere ez da heltzen antzeko beste arlo batzuen aprobetxamendura ($0,3 \text{ m}^2/\text{m}^2$). Hori guztia dela eta, aldaketa orekatua dela eta auzoa berritzea eta Ondizera eta Txorierrira joateko bideak hobetuko dituela esan daiteke.

Iritziak azaldu dizkiote elkarri eta, bertan, EB-Berdeak taldeko ordezkariak adierazi du ez duela onartzen espedientearen planteamenduarekin. Adierazi duenez 37. arlorako proposatutako aldaketak etxebizitzaren % 100 BOE etxebizitza izateatik %65 izatera murrizten du behin betiko eta, ondorioz, higiezinaren ikuspegitik arloa bideraezina izatekotan, udalak aldea finantza lezake, Sakonetan berreskuratuko dituen orubeak saltzearen bitartez.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Espedientea bidaliko zaio udalaren osoko bilkurari, gaia eztabaidatu eta hasieran onesteko.
- Udalaren osoko bilkurak hasieran onetsitakoan, hilabeteko epean azalduko da agiria jendaurrean, iragarkiak argitaratuz BAOn eta egunkarietan, gai honetan indarrean dauden legeetan zehaztutakoa betetzearren (Lurraren Araudiari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen 41. artikulua, 1976ko apirilaren 9ko testu bat egina).

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Pixka bat antzeko egoerara itzultzen dela adierazi du, izan ere bere esanetan Ondizen landa-izaerari eusten saiatzea denen buruan zegoen Plan Orokorra egiterakoan eta horri buruzko proposamen asko izan ziren eta orain beharbada erabilera ezberdina mahairatzen da. Positibotzat jotzen du baselizaren inguruak urbanizazio hobea izatea, baselizan nahiz demalekuan egiten diren ekitaldietarako aparkaleku-tokia izatea, baina uste du berriz ere oso prezio handia ordaintzen dela. Adierazi du, halaber, programatu gabeko gune bat nahikoa moztea errepidez ongi inguratua gelditzeko eta orduan hiri-lurtzat jotzeko eta horrela eraiki ahal izateko, eta generako mahairatzen diren etxebizitza berrien kopurua ezartzea eta gainera babes ofizialeko etxeen portzentajea jaiste edo bi-jatetxe izatea, esatera iritsi dela uste duen moduan, ez da bere ustetan auzorako irtenbiderik hoberena. Esan du hori egiten bada ikastola eta institutua egin ahal izatearekin lotzea, bestela hori egitea ezinezkoa izango balitz bezala, ez zaiola oso neurri edo jokamolde egokia iruditzen. Adierazi du irtenbideetako batzuk bikainak iruditzen zaizkiola, beste kasuetan bezala, kontua ez dela ez zaiola ongi iruditzen baina uste duela kasuistika edo egiteko modua ezberdina izan zitekeela eta, benetan, herriaren erdialdean babes ofizialeko etxebizitzaren portzentajeei uko egitea horretarako oinarri hartuta, ez daki, ingeniaritza kartografikoa,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

zati bat kentzen duena eta gero hiru-lur bilakatzen dena, eta ondorioz babes ofizialeko etxebizitzaren portzentajea jaiste, hori iruzurra iruditzen zaiola.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

EB-Berdeak taldeko bozeramaileari adierazi dio uste duela kontraesanean ari dela eta bistan dagoela, izan ere alkatearen esanetan lehenengo salatu du ingeniari-ahalegina egiten dela hiri-gunean sartzeko eta mintzaldiaren bigarren zatian, berriz, adierazi du herriaren erdian dagoela, eta uste du errealitatea mapak adierazten duena dela, bi hiri-guneren artean dagoen lurzorua dela alegia. Amaitzeko, esan du bururatzen zaien irtenbiderik hoberena hori dela, nahiz eta EB-Berdeak-ena ere errespetatu.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Proposatzen den aldaketa, eta aurrekoak ere bai, positibotzat jotzen dituztela esan du, kasu honetan Ondizko ingururako eta proposatutako alderako, eta bereziki positiboa Sakoneta institutuari ematen zaion irtenbidearengatik; bere esanetan, Eusko Jaurlaritzari institutu berri baterako 12.000 m² lagatzeko aukera ematen du, eta horrek aukera emango du lur bat libratzeko oraintxe bertan Sakoneta institutuak hartuko duena kiroldegiaren ondoan; Leioaren hiri-garapenerako oso interesgarritzat jotzen dutela dio, funtsean ez soilik jarduera-aukera honengatik baizik eta oro har proposatzen diren jarduera ezberdinegatik, positiboa dela uste dutela eta horregatik aldeko botoa eman behar dutela.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Azaldu du komenigarria litzatekeela institutua izan litekeen ekipamendu publiko baterako esparru batetaz hitz egitea. Uste du lanean ari direla bi esparru izan daitezkeen, alternatiboak edo metatzekoak, hau da, esparru hori kiroldegiaren ondoan eta baita beste esparrua ere, gaur egungo institutua inguratzen duena, Unibertsitatekoa. Esan du lehenik zeinetan jardun erabakitzea Eusko Jaurlaritzarekin eta eskola komunitatearekin hartu beharreko erabakia dela, beraz bere ustez aukera asko dituelako institutua hor doala orain esateko goizegi dela, bi aukera izango direlako eta hori etorkizunari begira garrantzitsua dela, izan ere herriak handitzen jarraituko du –era kontrolatuan espero du-, eta Plan orokorraren aldaketa honekin bi esparru izango dira, bata institutuaren ondoan Unibertsitate Campusaren ondoan, eta bigarren hau; hortaz, bere esanetan Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin beharko da zein esparru aktibatuko den lehenago.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Aldaketa honek dituen alde onetako bat institutuaren gaia dela oso garbi dutela esan du; horri dagokionez, esan du zegokionean ez zirela kontra azaldu baina beren zalantzak agertu zituztela Jose Miguel de Barandiaran institutua goiko Jose Miguel de Barandiaran deitzen duten eraikina izateaz hori baita Unibertsitatearen lurretan dagoena, baina esan duenez zalantza handiak dituzte Leioako eskola publikorako hoberena ote den, ez ordea hainbesteko zalantza Leioako irakaskuntza publikorako



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

eta Leioako udalerrri osorako ona lagapeneko 12.000 m² horietan bigarren hezkuntzako institutua eraikitzea izateaz.

Esan du halaber zalantzak dituela Ondizko gaian mahairatzen den aldaketaz; ez zaie dena gustatzen, baina ulertzen dute hirigintzan gauzak konplexuak direla, eta Plan Orokorra onetsi zenean ikusten zuena orain beste era batera ikusten du, eta gaur onetsi den aldaketaren modukoak eskatzen ditu bere ustez; EB-Berdeak taldeko bozeramaileari esan dio Oren %100 0 dela, hau da, gai bat aurrera ateratzen bada nahiz eta babes ofizialeko etxebizitzak %100 izan Otik 0 dela, eta aldiz zergaiten %60 Leioarako babes ofizialeko etxebizitza dela, eta pisuzko arrazoia iruditzen zaienez, baiezkotua emango dutela iragarri du.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Alkate jaunaren mintzaldiari dagokionez, esan du ez duela uste kontraesanean erortzen denik Ondizko gunerako landa-izaera gordetzea atsegin zutela esan duelako, hortaz beheko aldean %100 babes ofizialeko etxebizitzak egitea esatearekin, ez du uste kontraesana dagoenik etxebizitzak %100 babes ofizialekoak izatearen eta goiko guneari eman nahi dioten landa-izaeraren artean. Adierazi du goiko gunean, 32 etxebizitza berri eraikitzea, gehi bi ostalaritza-gune, beharbada gaizki datorrela dagoen moduan, eta hortaz beste modu batera izan zitekeela iruditzen zaiela. Halaber, esan du txostenean 12.000 m²-etan institutua eraiki daitekeela esatea ideia ona iruditzen zaiela eta errepikatu du behin betiko erabaki beharko litzatekeela bigarren hezkuntzako ikastetxea lur horretan egitea, horrela xedea ez aldatzeko eta ondorioz institutua dagoelako gustatu eta baiezkotua ematen dutenek ez dezaten ikusi iruzur egiten zaiela; esan du beharbada kontraesanak hor daudela, eta adierazi du nahiago duela %100 babes ofizialeko etxebizitzak dituen blokea izatea %65 babes ofizialekoak dituen baina. Baina bloke horrek hirigintza-zamak zituenez, Eusko Jaurlaritzak ez dirudiela horien kargu egiten denik eta horregatik sektore pribatua egiten dela eta %100 babes ofizialeko etxebizitzak izateatik %65 izatera murrizten dela; hori hirigintzako iruzurra dela iruditzen zaio. Errepikatu du nahiago duela %100 babes ofizialeko etxebizitzak, eta institutua egin behar bada adieraz dadila eta ziurra ez bada institutua doala ez esatea, bestela engainuak hartzen dituztela ematen duelako.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

EB-Berdeak taldeko bozeramaileari adierazi dio ez duela uste %100 babes ofizialeko etxebizitza izatea ona denik, nahiago lukeela %137 babes ofizialeko etxebizitza izatea, baina arazoa ez dela nahi izatea baizik eta nola egiten den, eta dirudienez ezin izango denez egin, bada doitu egiten dela egin ahal izateko; hortaz, PSE-EE-PSOeko bozeramailearekin bat datorrela dio, hau da, Oren %100 0 dela eta 100eko %65, egiten bada, %65 dela, beraz errealitateak direla eta ez desioak, eta hori oso garrantzitsua iruditzen zaiola.

Ondizko guneari dagokionez, adierazi du proposamen horren ekarpena nabarmena iruditzen zaiola, lehenik Ondizen aurreikusitako etxebizitzak baino gehiago sortzen ari ez delako, diseinua doitu eta baselizaren eta Ondizko zelaiaren inguruan berdeguneen hazkuntza oso nabarmenaz, beraz bikoiztu baino gehiago ia hirukoiztu



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

egiten dela, bide berria eta aparkalekuak sortzen direla, eta egoitzaz gain ekonomi jarduera ere izango dela, ostalaritza, eta horrek zerbitzu ematen diola Ondizko zelaira joaten den jendeari.

Beheko guneari dagokionez, berriz, adierazi du eragiketa honen bidez ez dutela engainatu behar hor institutua egingo ez delako, izan ere esan du zortea dagoela hor bi lursail daudela eta orain Eusko Jaurlaritzako Ordezkaritzan eskola komunitatearekin hitz egiten ari direla, aukerak neurtzen, eta horien bitartez erabakiko dela nola gauzatu; hortaz, ez dela truke-eragiketa bat gero instituturik izan ez dadin, baizik eta bi lursail alternatibo izateko zortea dagoela, lehenik bat hartu ahal izateko.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

EB-Berdeak taldeko bozeramaileari adierazi dio gaizki ulertu ez badio Eusko Jaurlaritzak bere kargu hartzen ez duela aipatu duela, eta Etxebizitza Sailaz ari baldin bada gonbidatuko lukeela bere alderdikideari deitzera Ondizen %100 babes ofizialeko etxebizitzak egin ditzaten, eta orduan gaur esandakoa zuzenduko luketela.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Hori ulertzeko idatzitakoa irakurtzea nahikoa dela esan du, baina orain badirela batzuk zertaz ari diren hizketan ez dakitenak, hain zuzen ezberdin hitz egiten dutelako toki batean eta bestean edo hona etortzen direlako horrela izatea nahiko luketela esanez baina ez dutela nahiko luketena bozkatuko baizik eta beste gauza bat; esan duenez, aste honetan bertan erakutsi dute babes ofizialeko etxebizitza ez dela gehien interesatzen aiena, eta, hortaz, esango liekeela Hirigintza Batzordean aitzakia modura jarri zutela Eusko Jaurlaritzak ez zela %100 babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzearen kargu egiten oso lursail handia zelako eta hirigintza-zama handikoa; adierazi du irtenbidea ez dela Eusko Jaurlaritzari esatea zama txikiagoarekin egin dezala baizik eta zamak kendu eta ekimen pribatuari ematea aukeratu dutela.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

EB-Berdeak taldeko bozeramaileari adierazi dio beste alternatiba zein den esan beharko lukeela, izan ere beste alternatibarik ez bada ez dira etxebizitzak egingo.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Hirigintza-zamak ken daitezkeela esan du Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko etxebizitzak egin ahal izan ditzan eta ez ekimen pribatuaren bitartez egin ahal izan daitezen.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Bere mintzaldia bukatzeko esan du etxeaz gain lorategiak, plazak, farolak, kaleak ere izan beharko direla, izan ere ezin dira etxeak eraiki dagokien urbanizazioaz hornitu gabe.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hemeretzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak, PPko lau zinegotzienak eta EAko ordezkariarena; kontrako bi boto ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz**, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpena berretsiz, hasieran **onetsi du** Plan Orokorra zati batean aldatzea Ondiz auzoa garatzeko, 28 A (Ondiz finkatua), 28 B (Ondiz historikoa) eta 37 (Ondiz hutsik) arloak sortuz. Espedientea jendaurrean azalduko da eta epe horretan inork erreklamaziorik aurkeztzen ez badu, erabakia behin-behineko bihurtuko da.

5.- MIGUEL BARREIRO UGARTE JAUNAREN ESKABIDEA, EGUNKARIAK SALTZEKO KIOSKOA JARTZEKO ASMOZ ITURRIBIDEN DAGOEN HERRI-BIDEKO GUNEAREN BAKARREKO ERABILERARENGATIK ADJUDIKAZIODUNAK ORDAINDU BEHARREKO KANONA MERKATZEKO ESKATUZ: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko otsailaren 15ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 74/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko otsailaren 9an hartu zuen 20 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udal Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute udalaren osoko bilkurak 2004-12-23an hartutako 2. erabakiaren bitartez Miguel Barreiro Ugarte jaunari adjudikatu zitzaioela Iturribide kaleko 12. zenbakiaren parean dagoen herri-bideko gune baten emakida, bertan egunkariak saltzeko kioskoa jartzeko. Interesdunak aurkeztutako eskaintzak urteko 1.500,00 euroko kanona ezarri zen.

Miguel Barreiro Ugarte jaunak idazkia aurkeztu zuen 2005-01-24 egunean (sarrera-erregistroko zk.: 454); horren bitartez, urteko kanona merkatzeko eskatu zuen, 1.500,00 eurotik 700,00 eurora, jarduera horrekin jarraitzeko ordaindu behar izan dituen kostu garestiengatik.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak kontuan hartu du Miguel Barreiro Ugarte jauna izan zela gai honetarako eskaintza aurkeztu zuen pertsona bakarra. Hori dela eta, aldeko irizpena eman dio urtean 1.500,00 euroko kanona urtean 700,00 eurora merkatzea, interesdunak egindako proposamena oniritziz.

EBAZPENA



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Miguel Barreiro Ugarte jaunaren proposamena **onestea erabaki du**, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutako termino berberetan.

6.- AUKERA-BERDINTASUNAREN PLANA ONESTEA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko otsailaren 1ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 65/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeak 2005eko urtarrilaren 26an hartu zuen 13 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udalaren osoko bilkurak 2004ko maiatzaren 27an hartutako __. erabakiaren bitartez mahai gainean utzi zen aukera-berdintasunaren plana onesteko proposamena. Ondoren Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeari bidali zitzaion espedientea, berau aztertu eta horri buruzko proposamena egin zezan. Horrenbestez, Beatriz Resa Bardeci andreak aukera-berdintasunaren planaren testua aurkeztu da, onesteko.

Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio aurkeztutako testua onesteari.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Plan horri beraien aldeko botoa eman behar diotela azaldu du; izan ere beren ustez horrelako plan bat beharrezkoa da gaur egun edozein udaletan, eta alde horretatik aitortu behar dute plan honek udal eginkizunaren hainbat eta hainbat arlo hartzen dituela bere baitan; uste dute orokorrean positiboa izan daitekeela udalerrian benetako berdintasun politika sustatzeko. Horri dagokionez, esan du badirela zenbait alderdi bistan denez beraiek bat ez datozenak edo ez behintzat erabat, edo beharbada beste era batera bideratuko zituztela, edo proposatzen diren zenbait ekintza beste modu batera egin edo mahairatuko zituztela, baina oro har, esan duen moduan, orokorrean ikusten dute oso garrantzitsua dela Plana aurrera ateratzea eta horregatik aldeko botoa emango dutela.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Adierazi du Plana baino garrantzitsuagoa dela, nolahi ere, gero hori abian jartzea, eta hortxe izan beharko dutela exigenteak udal arduradunekin, Planean proposatzen diren hamarnaka ekintzak bete daitezten eta aurrera atera daitezten. Alde horretatik, bere talde politikoarentzat garrantzitsua da Planean proposatzen den berdintasun batzordea; horren eginkizuna Plana zenbateraino bete den segitzea eta ebaluatzea izango da. Esan du espero dutela berdintasun batzorde horrek, bere osaera zehatzak, Planak ezartzen duen osaera orokorraz haratago, eta bere jardunbide-araubideak, zehatz adieraz dezala Gizarte Ekintza Batzordean, hain zuzen ere talde guztiek garbi jakin ahal izan dezaten Plana zenbateraino bete den eta egiten joango diren ekintzak zeintzuk diren.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Esan du ez dakiela oso ongi nola hasi, garaia bazela esanez edo zein ongi onartu dela edo zorionduz, etab., baina egia dela dagoeneko mahai gainean plan bat dagoela. Esan du atalez atal eztabaida lezaketela, eztabaida lezaketela ona den edo nahikoa den, baina uste dutela garrantzitsuena egina dagoela dela, eta Udalbatzak onartzeko dagoela, nahiz eta beraien iritiz bigarrena edo hirugarrena onartzen aritu beharko luketen, baina nolahi ere lehen plan hau onetsi behar dutela esan du, Ppko bozeramaileak esandakoarekin bat etorritik, garrantzitsuena abian jartzea baita, eta ebaluazioa egitean oso helburu garrantzitsuak bete direla esan ahal izatea. Bukatzeko, gaineratu du esanez aurrekontuen eztabaidan dagoeneko helarazi zutela plan honi lotu zaion zenbateko ekonomikoa oso zaila dela abian jartzea baina edonola ere konfiantzazko botoa eman behar dutela eta baiezko botoa emango dutela.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Plan orok helburu eta ekintzen definizio interesgarri bat baduela esan du, hori dela plan edo egitasmoa, eta orain abian jarri beharra dagoela. Esan du edonola ere eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiola Bea Resa andreari, arloko zinegotzi-ordezkaritari, izan ere proiektua sustatu du bere azken idazkuntzan eta denak ekarpenak egitera eragin ditu eta orain abian jarri behar da.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, "Aukera-berdintasunaren plana" **oneste** **erabaki du**, Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeak aurkeztutako proposamenaren arabera. Era berean, erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiko "Aukera Berdintasunerako eta Genero Politiketarako Unitateari" eta "Emakunderi" jakinaraziko zaie, jakin dezaten eta ondore egokiak izan ditzan.

7.- DROGA-MENDEKOTASUNEN TOKIKO PLANA ONESTEA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko otsailaren 15ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 109/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeak 2005eko otsailaren 9an hartu zuen 14 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Gizarte Zerbitzuen Sailak droga-mendekotasunen tokiko planaren berri eman du; hori Etoraintzak egin du udalerrin honentzat, Eusko Jaurlaritzak onetsitako hamabost urteko planaren zuzentarauei jarraituz, eta lau urteko indarraldia izango du (2005-2008).

Aipatutako plan hori onestea ezinbesteko betekizuna da proposatutako ekintzen garapenak Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritzaren diru-laguntza lortzeko.

Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio aurkeztutako testuari, eta PP eta IU-EB taldeetako ordezkariak abstenitu egin dira. Gai hori Udalaren osoko bilkurak aztertzeko ipiniko da, egiten den lehenengo bileran.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

PPko Aiala Egiluz Rodríguez andreak honakoa adierazi du:

Bere talde politikoak mendekotasun planaren alde egingo duela esan du, kontuan izanik oso beharrezkoa dela Udalean egin den azken gazteri plana dela-eta; nolahi ere, uste dute zehazki 5. atala, egoeraren diagnostiko eta azterketari buruzkoa, Euskadiko datuen oinarrituta dagoela eta ez udalerrinari buruzko datu zehatzetan. Halaber, uste dute dokumentuak alderdi teoriko gehiegi dituela eta ekintza zehatz gutxi, baina edonola ere oso onuragarria iruditzen zaie eta baiezko botoa emango dutela esan du.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

PP alderdiko zinegotzi Aiala Egiluz Rodríguez adierazi dio Leioak baduela alde on bat eta segur aski akatsen bat ere bai, hain zuzen udalerria ere gauza askoren batez bestekoan egon ohi dela, hala nola, hauteskundeetako datuetan, gai sozio-ekonomikoetan eta segur aski baita legezko eta legez kanpoko deituriko drogen erabileraren batez bestekoan ere. Bere mintzaldia amaitzeko, esan du alderdi teorikoak eta diagnostikoak duen bertutea duela eta garrantzitsuena, lehen adierazi duen moduan, ekintzarako ahalegina dela.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, "Droga-mendekotasunen tokiko plana" **onestea erabaki du**; horrek lau urteko indarraldia izango du (2005-2008). Era berean, erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritzari jakinaraziko zaio, ondore egokiak izan ditzan.

8.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2005-01-21ETIK 2005-02-18RA.

Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatezak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

9.- PRESAZKO MOZIOAK

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak zegokionean egindako eskaera errepikatu du, izan ere gaur tokiko prentsan Kultur Leioaren inguruan Wifi arloari buruz alkate jaunak egiten duen iragarkia agertzen da; ideia positiboa iruditzen zaio, eta osagarri bat udalerrri honetan teknologia berrien erabilera zabaltzeko egin diren gauza askotarako, baina zinegotzien bulegoetan oraindik internet ez dagoela ikusita, errepikagailu bat edo antzeko zerbait ezartzeko eskatu du, erabili ahal izateko.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak adierazi du egiteko gelditzen zaion gauza bakarra ordenagailua eta linea hartu eta berak konfiguratzea dela, izan ere Udaleko informatika arduradunarekin hitz egin du hori egin dezan, eta ikusten du oraindik ez duela konpondu; adierazi du edonola ere uste zuela Gomendiourrutia jaunarekin ez zela arazorik izango, hain zuzen ere horrelako gauzetan espezialista delako.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak adierazi du informatika arduraduna era anonimoan dagoeneko noizbait jarri dela berarekin harremanetan baina iruditzen zaiola bere taldearen posta elektronikoaz hitz egiteko izango dela; esan du orain ez dela horretaz ari, baizik eta bere bulegoan internet sarbidea izateaz, eta horretarako jakin beharko lukeela bulegoan dauden zuloetatik zeinetan konekta dezakeen, izan ere hitza eman eman zuen udalbatzak bulegoetan ADSL edo antzekoa izango zutela eta ez dute, eta zain daude ea noiz esaten zaien



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

egingo dela, izan ere esan zitzaien instalazio osoa egin beharrea router wifi bat jarriko zutela; hortaz, jakin nahi du hori noiz egingo den. Bere mintzaldia amaitzeko, adierazi du bere gaitasuna gorabehera bihar bertan ordenagailua ekarriko duela ea konfiguratzeko eta entxufatzen duten ikusteko eta, halaber, posta elektronikoa zein makinatan duten esan diezaioten.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak adierazi du bihar berriz ahaleginduko direla, gai hau konpontzen duten ikusteko.

Eta bederatzia eta hamabost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,